



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2023ko azaroaren 13ko EBAZPENA, 2023-2024 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituena.

Laguntzak berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen den onuradunari ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren hirugarren berritzea onartzea eta dagokion ezarpen zentroa zein kontratua finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Bigarrena.- Laguntza berritze horien zenbatekoak ordaintzea xedapen honen I. eranskinean aurreikusten den aplikazio-zentroari, ekainaren 20ko Aginduak, 7. artikuluan, ezartzen duen moduan.

Hirugarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak, 2023ko ekainaren 20ko aginduak xedatutakoak izango dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 13an.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,
Adolfo Morais Ezquerro